



ERRUGBIKO I. MAILAKO ENTRENATZAILE IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

Errugbiko 1. mailako entrenatzaile izateko ikasketen barruan, Bloke Komun bat, Bloke Espezifiko bat eta Prestakuntza Praktikoak daude. Ikasketak bukatutakoan, **Errugbiko 1. mailako entrenatzailearen ziurtagiria** lortuko da.

Ikastaro hau egingo duten ikasleek ikastaroaren berri izan dezaten, Euskal Errugbi Federazioak informazio hau ematen du:

HELBURUAK

Prestakuntzaren helburua da ikasleek beharrezko ezagutzak lortzea, honetarako:

- Errugbiaren kirol hastapeneko betearazpen tekniko baloratzea.
- Akats ohikoenak identifikatzea eta zuzentzeko zereginekin lotzea.
- Akatsak identifikatzeko eta zuzentzeko teknikak aplikatzea.
- Jokabide tekniko-taktiko egokiena baloratzea.
- Errugbian hasteko prozesuari buruzko informazioa biltzen laguntzea.
- Oinarrizko keinu teknikoak behar bezala gauzatzeko gai izatea.
- Jokoaren logika, espazioarekin eta baloiarekin jokatzea eta mekanismoak ulertzea.
- Errugbian hasteko saioa zehaztea, erreferentziatzko programaziotik abiatuta, joko irakasteko progresio metodologiko egokia erabilita, eta jokoaren bilakaeraren prozesua menperatzea, prestakuntza etapa guztien bidez.
- Programazioaren elementuak eta antolamendua deskribatzea.
- Ikaskuntza sekuentziak egitea (egokituta), eta errugbiaren ikaskuntza eta irakaskuntza prozesua egituratzea.
- Errugbian hasteko saioetan kirolariak gidatzea.
- Dinamizatze, ebaluatze eta kontrolatzeko prozedurak deskribatzea eta aplikatzea.
- Oinarrizko keinu teknikoak eta irakasteko eta ikasteko prozesuak zehaztea kasu bakoitzean.
- Jokoaren logika, espazioarekin eta baloiarekin jokatzea eta lankidetzeta eta aurkaritzeta mekanismoak ulertzea.
- Oinarrizko arauak ulertzea eta interpretatzea.
- Adinaren eta joko mailaren arabera arauen egokitzapenak eta horien progresioa deskribatzea, jokoaren eta jokalariren bilakaeraren arabera.
- Tag errugbi, minierrugbi eta midierrugbiaren arauak deskribatu eta aplikatzea.
- Adingabearen babesa bermatuko duten arauak ezartzea, bai alderdi fisikoan, bai psikologikoan eta baita moralari dagokionez ere.
- Jokabide kodeak ezartzea jokalarik gaztearen prestakuntzan parte hartzen duten estamentu guztientzat.
- Arau horiek betetzen ez badira, hori prebenitzeko, zuzentzeko edo zigortzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- Errugbiko kirol teknikarien ingurune instituzionala, sozioekonomikoa eta legezkoa deskribatzea.
- Espainiako errugbiko kirol teknikarien prestakuntza egitura deskribatzea.
- Errugbiko kirol teknikarien lehen mailako ziurtagirien titularrei aplikatu beharrekotan lan legeria ulertzea.
- Kirol teknikariaren kompetenziak, funtzioak, zereginak eta erantzukizunak ulertzea.
- Federazio autonomikoetan errugbia antolatzeko oinarrizko sistema deskribatzea.
- Lehiaketan ezaugarriak deskribatzea.



- Errugbian hasteko jardueren garapenean parte hartzea (lehiaketak, ekitaldiak, jarduerak).
- Ekitaldiaren antolamendu ezaugarriak eta behar materialak eta giza baliabideetakoak deskribatzea.
- Jarduteko segurtasun baldintzak identifikatzea.
- Kirola egiteko guneetan segurtasun araudia interpretatzea.
- Horrelako ekitaldi eta jardueretarako ezarritako protokoloak aplikatzea.
- Programatutako jardueri buruzko informazioa biltzen laguntzea.
- Helburuak eta horien ebaluazioa zein mailatan lortu diren jakiteko eta aztertzekeko prozedurak aplikatzea.

IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA (BLOKE KOMUNA ETA BLOKE ESPEZIFIKOA)

A) Sartzeko baldintzak

1. Gutxieneko adina, 16 urte
2. Sarrerako azterketa teoriko-praktiko bat arrakastaz gainditzea (ikus II. eranskina).
3. **Ikastaroan** izena emateko kuota ordaintzea:
 - **Bloke komuna:** **80 €**
 - **Bloke Espezifikoa + Prestakuntza Praktikoa:** **370 €**
4. Gurasoen baimena adingabeentzat.

B) Ikasketa plana

Ebazpena, 2011ko ekainaren 29koa, Kirol Kontseilu Goreneko lehendakariarena, errugbiko kirol modalitatearen prestakuntza plana argitaratzen duena.

| HASIERAKO ZIKLOAREN IRAUPENA (ord.): | Iraupena | Modalitatea |
|---|-----------------|--------------------|
| BLOKE KOMUNA | | |
| Kirol portaeraren oinarriak | 20 | D |
| Lehen laguntza | 30 | D |
| Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna | 5 | D |
| Kirol antolaketa | 5 | D |
| B. KOMUNA, GUZTIRA | 60 | |
| BLOKE ESPEZIFIKOA | | |
| Arlo tekniko-taktikoa | 35 | SP |
| Arlo didaktikoa | 20 | SP |
| Araudiaren arloa | 15 | SP |
| Adingabeak babesteko arloa | 5 | D |
| Garapen profesionalaren arloa | 10 | D |
| Ekitaldiak antolatzeko arloa | 5 | D |
| B. ESPEZIFIKOA, GUZTIRA | 90 | |
| Prestakuntza praktikoa | 150 | P |
| IRAKASKUNTZAK, GUZTIRA | 300 | |

Modulu bakoitzaren edukiak ikusteko, irakurri I. eranskina



C) Ikastaroa egitea:

SARRERA PROBA: 2024/01/12

Lekua: Donostia (egoitza zehaztu gabe dago).

BLOKE KOMUNA:

| | |
|--------------------|------------|
| Hasiera: | 2024/01/15 |
| Amaiera: | 2024/03/15 |
| Ohiko azterketa: | 2024/03/16 |
| Ezohiko azterketa: | 2024/04/13 |

BLOKE ESPEZIFIKOA:

| | |
|--------------------------------|------------|
| Hasiera: | 2024/04/26 |
| Amaiera: | 2024/06/16 |
| Aurrez aurreko jardunaldiak: | |
| ○ - Apirilaren 26, 27 eta 28an | |
| ○ - Maiatzaren 3, 4 eta 5ean | |
| ○ - Maiatzaren 17, 18 eta 19an | |

ESKOLAK EMATEKO METODOLOGIA:

Metodologia **ERDIPRESENTZIALA** da, aurrez aurreko eskola praktikoak eta Internet bidez ONLINE egindakoak konbinatuz, araudi erregulatuak ezarritakoaren arabera.

Ikastaro honetarako prestakuntza erdipresentzialaren ezaugarriak:

1. Teoriko gisa zenbatutako ordu guztiak teleprestakuntza modalitate horri jarraituz egingo dira.
2. Ikasleak ikastaroa egiteko erabiliko den plataforma informatikora sartuko dira, beren erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin. Ikastaroa antolatzen duen erakundeak emango dizkie erabiltzaile izena eta pasahitza, ikastaroa hasi aurretik.
3. Eduki teoriko guztia plataforma horretan egongo da eskuragarri, eta ikasleek beren ekipo informatikora deskargatu edo inprimatu ahal izango dute, ikasteko edo kontsultatzeko.
4. Programako modulu bakoitzak hiru zati ditu:
 - a. Moduluaren eduki teorikoak
 - b. Moduluaren ariketak
 - c. Moduluaren ebaluatzeko probak
5. **Bloke Komuna gainditzeko, ikasleak:**

Ikastaroaren modalitatea online da; hau da, **hezkuntza plataformaren bidez** egingo da, **banaka**.

Aurrez aurreko azken azterketa teorikoa egin ahal izateko, ezinbestekoa da plataformako jarduera guztiak gaindituta izatea. Aurrez aurreko azken azterketa teorikoa. Ikasgai bakoitzeko bat egingo da. Test modukoa izango da.



6. Bloke Espezifikoa gainditzeko, ikasleak:

“Ebaluazio jarraitu” bat egingo da, balorazio mekanismo gisa ulertuta. Ebaluazioan, hainbat proba edo jarduera finkatuko dira irakasgaian zehar, eta, hala, **ikasleak** ikasturte osoan zehar izan duen bilakaera pedagogikoa ebaluatuko da. Ebaluazioan, hau baloratuko da:

- a. Ezarritako konpetentziak eskuratu diren.
- b. Ikastaro osoan izandako jarrera: interesa, parte hartzea.
- c. Ikaslearen progresioa ikasturtearen hasieratik prestakuntza aldia bukatu arte.
- d. Ikasleak GAI atera beharko du ariketetan eta zereginetan, eta ikasgai bakoitzaren ebaluazio probak gainditu beharko ditu. Gaitzat hartuko dira proposatutako galderen %75i gutxienez zuzen erantzuten zaien proba guztiak.
- e. Aurrez aurreko azken ebaluazioa gainditu beharko du gutxienez 10etik 5 puntu lortuta.
- f. **Azken notari dagokion ehunekoak honako hau izango da:**

i. Notaren %60:

1. **Plataformako lana:** Ariketak, zereginak, online testa.
2. **Gutxienez aurreikusitako aurrez aurreko saioen %80ra joatea.** Ikasle batek ez badu betetzen bertaratzeko eskatzen den gutxieneko baldintza, ezingo da “ebaluazio jarraituaren” sistemaren bidez ebaluatu, eta, beraz, azterketa teorikoaren eta praktikoaren sistema tradizionalaren bidez egin beharko du ebaluazioa (ohiko deialdian zein ezohikoan). Nolanahi ere, arlo bakoitzeko ariketak, zereginak eta online testa gainditzeko gainerako eskakizunak bete beharko ditu.
3. **Ikaslearen aurrerapena eta bilakaera** (asteko balorazio orria)

ii. Notaren %40:

1. **Aurrez aurreko azken azterketa teorikoa** (ez dira azken proba praktikoak egingo, alderdi hori ebaluazio jarraituaren bidez ebaluatuko baita).

7. Ikasleek tutoreari kontsultak egiteko espazio bat izango dute, eta espazio horretan tutoreak ikastaroari buruz ikasleek planteatutako zalantza edo galdera guztiei erantzungo die. Posta elektronikoa izango da irakaslearekin harremanetan jartzeko bidea. EZ DA AURREIKUSTEN TELEFONO BIDEZ ERANTZUTEA.
8. Zati teorikoa edo teleprestakuntza egiteko ez dago alde aurretik ezarritako ordutegirik, eta, beraz, ikaslea nahi duenean sartu ahal izango da ikastarora eta nahi beste denboraz egon ikastaroaren barruan. Kontuan hartu behar da erakunde antolatzaileak ikasleen konexioen datuak erregistratuta izango dituela.
9. Ikasgai guztien amaierako azterketak AURREZ AURREKOAK izango dira.
10. COVID_19 pandemiaren egoera kontuan hartuta, ikastaroaren zuzendaritzak baditu beharrezko tresnak aurrez aurreko bere saioak GELA BIRTUALAREN bidez emateko (bi norabideko komunikazioa ikasleen eta irakasleen artean, eta sinkronikoa, asistentzia erregistratzeko sistemarekin, saioak grabatzeko sistemarekin...), saio horiek emateko beharrezkoa bada.

ONARPENA:

Ikastaro bakoitzean gehienez 25 ikasle onartuko dira, eta kopuru hori %10eraino handitu ahal izango da.

Eskaera kopurua 30 baino askoz handiagoa bada, bigarren ikastaro bat programatuko litzateke, baldin eta ikasle kopurua hori bideragarri egiteko behar dena bada.

Onartzeko baldintza izango da sarbide proba gainditzea eta A atalean aipatutako gainerako sarbide baldintzak betetzea.





D) Izen ematea eta zenbatekoak

IKASTAROAN IZENA EMATEA (Sarbidetza Proba + Bloke Komuna + Bloke Espezifikoa + Praktika)

Interesa dutenek urtarilaren 4a baino lehen eman beharko dute izena, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: ekfb@euskalkirola.eus.

Aurkeztu beharrezko dokumentazioa (Dokumentazioa posta elektronikoa bidez aurkeztu. Jatorrizkoak sarrera proban jasoko dira. Proba hori egin behar ez bada, posta bidez bidali Euskal Kirol Federazioen Batasunera **2024/01/14a baino lehen**):

1. NA, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
2. Beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa edo, bestela, ordezkotza heldutasun proba gainditu izanaren agiria. Onartzen diren dokumentuak:
 - * Titulu akademikoa edo tasak ordaindu izanaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua.
 - * Hezkuntza Ordezkaritzek emandako ordezkotza titulazioaren ziurtagiriaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
 - * Ziurtagiri/espeditze akademikoa pertsonal ofizialaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua (ikasketak egin diren ikastetxean bertan eskatu behar da. Ziurtagiri ofizialak Eusko Jaurlaritzaren logoa du).
 - * Kalifikazio liburuaren fotokopia konpultsatua (eskolatze liburua).
3. Karnet neurriko bi argazki
4. Izena emateko orria beteta eta sinatuta (VI. Eranskina)
5. Errugbi federazioaren lizentziaren kopia.
6. Diru transferentzia (ordainketa kontu honetan egin beharko da: ES68 0138 0038 5301 1370 2724). Kontzeptuan izena eta abizenak adierazi.

Matrikulatzeko baldintzak:

- a. Beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa edukitzea***
- b. Sarrerako proba gaindituta izatea***
- c. Errugbi federazioaren lizentzia indarrean edukitzea ikasturte osoan***
- d. Ikastaroa ordaintzea***

Izena eman aurretik, berrikusi baliokidetzaren gaineko IV. Eranskina

BLOKE KOMUNAREN ZENBATEKOA: 80 €

BLOKE ESPEZIFIKOA + PRESTAKUNTZA PRAKTIKOAREN ZENBATEKOA: 370 €

Izena eman aurretik, berrikusi baliokidetzaren gaineko IV. Eranskina



BEKAK

Bizkaian erroldatuta daudenek (gauden urteko urtarrilaren 1etik aurrera etengabe), BFAREN bidez beka eskatu ahal izango dute (argitaratzen badira).

Aurreko ikasturte akademikorako argitaratu zen azken deialdia aztertu ahal izateko, hau da deialdi horren esteka: https://www.bizkaia.eus/kultura/Dirulaguntzak_eta_laguntzak/pdf/l-816_2019_cas.pdf?hash=dedb03c4484caf8f030fee83e9008fe6

E) Irakasleak

BLOKE ESPEZIFIKOA: Atxikita doan taula (III. eranskina)

F) Ziurtagiria

Bloke Komuneko eta Espezifikoko ziurtagiriak dituztela egiaztatzen dutenei, eta Prestakuntza Praktikoko blokearen ordu karga amaitu dutenei, Kirolaren Euskal Eskolak emango die ziurtagiri hori.

G) Sarrera proba

Edukiak hemen daude zehaztuta: ebazpena, 2011ko ekainaren 29koa, Kirol Kontseilu Goreneko lehendakariarena, errugbiko kirol modalitatearen prestakuntza plana argitaratzen duena.



I. ERANSKINA

Bloke Espezifikoa: helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak.

Erreferentziako araudia: ebazpena, 2011ko ekainaren 29koa, Kirol Kontseilu Goreneko lehendakariarena, errugbiko kirol modalitatearen prestakuntza plana argitaratzen duena.

Arloa: Tekniko-taktikoa.

- Errugbia, egiturazko elementuak eta analisi funtzionala.
- Jokoaren mugimendu orokorra.
- Aurrera egitea – aurka egitea.
- Lankidetzeta.
- Joko kolektiboa.
- Konkista faseen egiturazko elementuak.
- Kirol teknikaren kontzeptua.
- Baloia jasotzea. Airetik, lurzorutik, pase batetik... Keinu teknikoaren azterketa. Ikasteko ariketak.
- Lasterketa baloiarekin. Norabide eta erritmo aldaketak. Ikaskuntzarako ariketak.
- Pasatzea. Pasatzean esku hartzen duten pertzepzio eta mugimendu faktoreak eta gaitasun bideratzaileak. Ikaskuntzarako ariketak.
- Atzitzea (plakatzea). Pertzepzio eta mugimendu faktoreak eta faktore afektiboak teknikaren ikaskuntzan. Ikasteko ariketak.
- Baloiak berreskuratzea. Esku hartzen duten pertzepzio eta mugimendu faktoreak eta gaitasun bideratzaileak. Ikasteko ariketak.
- Baloia eustea. Faktore indibidualak.

Arloa: Didaktikoa

- Errugbi ebolutiboa.
- Tag errugbia.
- Minierrugbia.
- Midierrugbia.
- Errugbian irakatsi eta ikasteko prozesuaren oinarriak.
- Errugbiari aplikatutako kirol irakaskuntzako prozesuaren oinarriko printzipioak.
- Errugbian aplikatutako kirol irakaskuntzako ereduak.
- Teknika eta taktika irakasteko etapen ezaugarriak.
- Kirol irakaskuntzaren etapak.
- Errugbian hasteko etapak. Kontzeptua eta eduki motak.
- Edukien sailkapena.
- Errugbia irakasteko jarduerak. Kontzeptua eta jarduera mota.
- Irakaskuntzarako jarduerak hautatzea, helburuen arabera.
- Kontzeptua eta saioaren zatiak. Saioaren ezaugarriak.
- Errugbia ikasteko faktoreak eta faseak.
- Baloia eustea. Faktore indibidualak eta teknika kolektiboak.
- Fase estatikoak.



Arloa: Araudia

- Izaera administratiboko arauak.
- Oinarrizko arauak.
- Baloia jokoan jartzeari buruzko arauak.
- Arau aldetik dauden desberdintasunak eta horien bilakaera, kategorien arabera.
- Tag errugbia.
- Aurrerrugbia.
- Minierrugbia.
- Midierrugbia.
- Lehiaketa autonomikoen eta nazionalen araudia. Parte hartzeko baldintzak.

Arloa: Adingabeen babes

- Oinarrizko printzipioak: profesionalen erantzukizunak Ongizatean eta Adingabeen Babesean. Ongizateaz eta adingabeen babesaz arduratzen diren organoak, izan klubetakoak, eskoletakoak, lurralde federazioetakoak edo izan Espainiako Errugbi Federaziokoak.
- Tratu txarrak aitortzea: tratu txar emozionalak, sexualak, fisikoak, arreta falta eta larderia.
- Jardunbide okerrak.
- Susmoen erantzunak, alegazioak kudeatzeko prozedurak eta ekintza egokiak.
- Jardunbide egokiak errugbiaren inguruan.

Arloa: Garapen profesionala

- Kirol teknikariaren irudia; lege esparrua.
- Lanbide jardunerako lege betekizunak.
- Lanbidean aritzeko lan eta gizarte betekizunak.
- Kirol teknikariak lanbide jardunean dituen erantzukizunen araubidea. Erantzukizun zibila. Erantzukizun penala.
- Funtzioak eta zereginak. Mugak.
- Entrenatzaileen antolaketa Espainiako Errugbi Federazioaren barruan.
- Entrenatzaileen Eskola Nazionala.
- Federazio autonomikoak. Antolamendua eta funtzioak.
- Errugbi klubak. Sailkapena eta ezaugarriak.
- Errugbiko kirol teknikarien prestakuntza planak.

Arloa: Ekitaldiak antolatzea

- Lehiaketen iraupena eta ezaugarriak, jokalarien adinaren, kategoria bakoitzari egokitutako jokoaren eta egiten den lehiaketa motaren arabera.
- Txapelketetako kontrol mahaiaren, arbitroen eta marrazainen funtzioak.
- Lizentziak, aktak eta emaitzen kontrola.
- Lehiaketa bat modu seguruan egiteko baldintzak. Kasu bakoitzeko araudi espezifikoa.
- Segurtasun eremuak eta elementuak muntatzea.
- Lehiaketen garapenari buruzko araudia: formatua, gurutzatzeak eta berdinketak haustea.
- Azken aktak jasotzea.
- Ekitaldiaren garapena aztertzea eta ebaluatzea.
- Zuzendu edo hobetu beharreko alderdiak.



II. ERANSKINA

Prestakuntza Praktiko Blokea. Helburuak eta edukiak.

Prestakuntza helburuak.

- a) Praktiketako kirol zentroaren (kluba, federazioa) administrazioan laguntzea, ekonomia eta kontabilitatea kudeatzeko prozedurak aplikatuz.
- b) Lanpostuan autonomiaz, ekimenez eta erantzukizunez jokatzeko, jokabide etikoa, komunikatzeko trebetasun pertsonalak, talde lana eta ingurumenarekiko errespetua erakutsiz, eta klubak ezarritako prozedurak aplikatuz.
- c) Kirol Hastapenaren eta Teknikazioaren mailari dagozkion lehiaketak eta ekitaldiak antolatu eta kudeatzea.
- d) Errendimendu Handikoetan laguntzea, lehiaketaren kudeaketan eta diseinuan parte hartuz, jasangarritasun irizpideak aplikatuz.
- e) Kirolariak gidatzea, nazioarteko edo goi mailako jarduera, lehiaketa eta bestelako ekitaldietan parte har dezaten.
- f) Taldearen zuzendaritzan laguntzea, errugbiko nazioarteko edo maila handiko jardueretan, lehiaketetan eta bestelako ekitaldietan parte hartzen den bitartean.
- g) Taldearen eta lehiakideen balizko egoera taktikoak, arbitraje erabakiak, ingurunearen ezaugarriak... baloratzea, eta ezarritako prozedurak aplikatzea.
- h) Jokalarien entrenamendua planifikatzea epe luzera, ertainera eta laburrera.
- i) Kirolariaren eta ingurunearen informazioa interpretatzea.
- j) Espezialisten taldea koordinatzea, eredu, prozedura eta teknika egokienak aplikatuz.
- k) Taldearen entrenamendua (eta prestaketa kontzentrazioak) antolatu eta zuzentzea, teknikari espezialisten taldeak koordinatuta, errugbiko errendimendu faktore bakoitzeko entrenamendurako berariazko baliabideak eta metodoak aplikatuta, eta teknologia berriak entrenamenduaren eta lehiaketaren erregistroan aplikatuta.

Kirol irakaskuntzako modulu espezifikoaren egiteko prozedura: Prestakuntza praktikoa

1. Ikasleak praktikak egiteko aurreikusitako datak eta ordutegia adieraziko dizkio Euskadiko Errugbi Federazioari, baita irakasgaia zer zentrotan egin nahi duen ere.
2. Euskadiko Errugbi Federazioak egiaztatuko du ea klub horretan badagoen horretarako baldintzak betetzen dituen tutorerik.
3. Euskadiko Errugbi Federazioak edozein unetan egiaztatu ahal izango du ea praktikak eskatutakoaren arabera egiten ari diren, eta, hala ez bada, irakasgai hori etenda geratuko da.
4. Praktiketarako Orria bete (hurrengo orrialdean dago). Tutoreak bete eta sinatu behar du, gero Euskadiko Errugbi Federazioari bidaltzeko.



III. eranskina.

BLOKE ESPEZIFIKOKO IRAKASLEEN TAULA

| | Irakasgaia | Irakaslea | Titulazioa |
|---------------------------|---|-----------|------------|
| Bloke Komuna | KIROL PORTAERAREN OINARRIAK | EKFB | |
| | LEHEN SOROSPENAK | EKFB | |
| | JARDUERA FISIKO EGOKITUA ETA DESGAITASUNA | EKFB | |
| | KIROL ANTOLAKETA | EKFB | |
| Bloke Espezifikoak | Tekniko-taktikoa | | |
| | Didaktikoa | | |
| | Araudia | | |
| | Adingabeen babesa | | |
| | Garapen profesionala | | |
| | Ekitaldiak antolatzea | | |



IV. ERANSKINA

Bloke Komunaren baliozkotzeak

Honako titulu hauetakoren bat duten ikasleek Bloke Komunaren baliozkotze osoa edo partziala eskatu ahal izango dute kirol prestakuntzako jarduera egingo duten mailan:

- Gorputz Hezkuntzan lizentziatua
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua edo graduatua
- Irakaslea: Gorputz Hezkuntzako espezialitatea, Lehen Hezkuntzako graduatua, Gorputz Hezkuntzako aipamenarekin
- Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioko goi mailako teknikaria
- Ingurune naturalean gorputz eta kirol jarduerak gidatzeko teknikaria
- Beste LOGSE tituluren bat izatea: futbola, saskibaloia (2015era arte), mendia...

Baliozkotzearen tramitazioa ikasleek egin behar dute Bloke Komuna hasi aurretik; hau da, pertsona fisikoak eskatu behar dio baliozkotze partziala edo osoa Kirol Kontseilu Nagusiari (KKN), eta azken horrek emango edo ukatuko ditu baliozkotzeak.

- Ikasleak behar bezala bete eta sinatutako eskaera:
https://sede.csd.gob.es/oficinavirtual/Pdf/206525_Solicitud_V6.pdf
- Ziurtagiri edo titulu akademiko konpultsatua
- Nortasun agiria

Badaude zentroak zuzenean egin ditzakeen baliozkotzeak. Horregatik, komenigarria da zentroari kontsulta egitea KKNri eskaera egin aurretik.

Dokumentazioa ezarritako epean eta goian aipatzen den bezala aurkezten ez bada, ikasleen ardura izango da dokumentazioa baliozkotzea eta Bloke Komuna hasi aurretik garaiz eta behar bezala aurkeztea. Baliozkotzea ezarritako epean ez aurkezteak matrikula egin deneko mailari dagozkion prestakuntza modulu guztiak egin behar izatea dakar.

LOE bloke komun bat egin duten pertsonak ez dira matrikulatu beharko eta ez dute baliozkotu beharko modularik, aurretik prestakuntza gainditu dutelako, eta titulazio hori badaukatela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.



V. eranskina

BALDINTZA ESPEZIFIKOAK EGIAZTATZEKO PROBA ANTOLATZEA

Requisitos de carácter específico. Estructura de la prueba.

Contenido: El aspirante tendrá que completar un circuito técnico que se realizará en un campo de rugby, y que incluirá, los ejercicios que se indican en este apartado. En cada uno de estos ejercicios, realizará funciones de atacante y de defensor alternativamente.

| Situación | Diagrama | Consignas |
|----------------|----------|--|
| 1 contra 1 | | Objetivo: ensayar Balón en las manos A la señal, atacante y defensor deben volver hacia su campo y bordeando un cono, jugar 1 contra 1 Dimensiones: 10 x 7 m |
| 1+ 1 contra 1 | | Objetivo: ensayar Balón en las manos Dos atacantes y un defensor Atacantes y defensor deben volver hacia su campo y bordeando un cono (el apoyo debe girar por el cono mas alejado) jugar 1 + 1 contra 1 Dimensiones: 10 x 7 m |
| 2 contra 1 | | Objetivo: ensayar Balón en las manos Dos atacantes y un defensor Atacantes y defensor deben volver hasta su campo, girar alrededor de un cono y jugar 2 contra 1 Dimensiones: 10 x 7 m |
| 2 + 1 contra 2 | | Objetivo: ensayar Balón en las manos Tres atacantes y dos defensores Atacantes y defensores deben volver hacia su campo, bordear un cono (un atacante por el mas alejado) y jugar 2 + 1 contra 2 Dimensiones: 10 x 10 m |

Ebaluazio irizpideak:

Baloia daramanean:



Bat baten kontrako egoeretan:

- Erabakitasunez egiten du aurrera, egoerak hala eskatzen duenean kontaktuari beldurrik izan gabe.
- Kontaktuan baloia babesten du, eta aurkariarengandik urrun mantentzen du.
- Atzitzen (plakatzek) badute, eta lurrera erortzen bada, baloia bere eremurantz utzi, eta gorputzarekin babesten du.
- Espazioarekin jolasten du, aurkariaren alde ahulari eraso eginez.

1 + 1 beste baten aurkako egoeretan (laguntza axiala):

- Bere babeserako espazioa sortzen du, alde bati erabakitasunez erasoz.
- Kontaktua izan aurretik pase batekin jolasteko gai da, egoerak hala eskatzen badu.
- Kolpekatze eta pasatze teknika menderatzen du.
- Atzitze (plakatzek) baten ondoren, pasatze teknika menderatzen du.
- Zuzen erabakitzen du zein teknika erabili defentsaren posizioen arabera.

Bi baten aurkako egoeretan (kanpoko laguntza):

- Bere taldekidearentzako espazioa sortzen du, defendatzailearen barne sorbaldari eraso eginez.
- Defentsaren arabera, zuzen erabakitzen du pasatzea edo korrika egitea.
- Ondo erabakitzen du pasatzeko unea.
- Pasea bi aldeetara zehaztasunez egiteko gai da.

2 + 1 biren kontrako egoeretan:

- Espazioarekin behar bezala jokatzeko du, lehen defendatzailearen barne sorbaldari erabakitasunez erasoz.

• Defentsaren egoera behar bezala hautematen du, eta erabaki zuzena hartzen du horren arabera (korrika egitea, laguntza axialarekin jokatzeko, kanpoko taldekidearentzat jokatzeko...).

Baloia daramanaren defendatzaile zuzena denean:

Defentsari dagokionez, berdintasun edo nagusitasun egoeretan:

- Erasotzaileari aurrea hartzen dio, eta barrutik kanporantz defendatzen du.
- Erabakitasunez egiten du aurrera, eta aurkariari denbora eta espazioa kentzen dizkio.
- Baloi daramana geldiarazteko gai da.
- Atzitzeko (plakatzeko) gai da, atzera eginaraziz eta baloia daramana lurrera botata.

Defentsari dagokionez, gutxiagotasun egoeretan:

- Egoeraz jabetzen da, eta denbora nahikoarekin eskatzen die laguntza kideei.
- Azken erasotzaile baliagarriari aurre eginez defendatzen du, baina ez du aurrera egiten, barneko defentsaren laguntza izango duela ziur dagoen arte.
- Beti baloia dagoen tokitik barrualdera mugitzen da, eta baloiaren eta entsegu lerroaren artean egoten saiatzen da.
- Erasotzailea barrura «bultzatzen» du.

Espazioak eta ekipamenduak:

- Arauzko errugbi zelaia.



VI. eranskina.
IZENA EMATEKO ORRIA:

Datu pertsonalak:

| | |
|------------------------|--|
| Izen-abizenak | |
| NAN zk. | |
| Jaioteguna eta lekua | |
| Helbidea | |
| Posta kodea eta herria | |
| Telefono partikularra | |
| Telefono mugikorra | |
| Helbide elektronikoa | |

Datu akademikoak:

| | |
|----------------------|--|
| Titulazio akademikoa | |
|----------------------|--|

| | |
|---------------------------------------|--|
| I. MAILAKO BLOKE KOMUNEAN matrikulatu | BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |
|---------------------------------------|--|

Gainditu gabeko irakasgaietan matrikulatzen bazara, adieraz itzazu ondoan, baita irakasgaiok zein ikastarotatik datozen adierazteko datuak ere:

| Irakasgaia | Ikastaroa (antolatzailea, lekua eta urtea) |
|------------|--|
| | |
| | |

| | |
|---|--|
| Irakasgairen bat, praktikaldiren bat edo bloke komun osoa baliozkotzea eskatzen duzu? | BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |
| Zein/Zeintzuk?: | |
| Erantsi dokumentazioa | |

| | |
|---------------------------|--|
| PRAKTIKALDIAN matrikulatu | BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |
|---------------------------|--|

SINADURA: _____

“Euskal Kirol Federazioen Batasunean, ematen diguzun informazioa tratatu egiten dugu, eskatutako zerbitzua emateko eta fakturazioa egiteko. Emandako datuak merkataritza/prestakuntza harremanak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan gordeko dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra dagoen kasuetan izan ezik. Euskal Kirol Federazioen Batasunean zure datu pertsonalak tratatzen ari garen baieztatzeko eskubidea daukazu; beraz, eskubidea daukazu zure datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko eta datuak jada beharrezkoak ez direnean ezabatzea eskatzeko.

Halaber, baimena eskatzen dizut eskatutakoarekin lotutako produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko eta bezero gisa fidelizatzen.

BAI
EZ